

2021-09-17 / 703. ZENBAKIA / 17. URTEA
 BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Tropelari agurra

Mikel Alonsok txirrindularitza profesionalari amaiera eman dio / 10-11



Mendi Film jaialdiko hainbat lan ikusteko aukera izango da Urnietan, datorren irailaren 23an / 13



Euskalduna eta Urnieta KE futbol taldeak denboraldi berrirako prest dira / 12

AHAZTUAK EMAKUMEAK BERTAN ZIREN ETA BERTAN ARI DIRA

Irailaren 10etik 25era bitartean
Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan

ANDOAINGO GUDUA

1837/89/14

ERAKUSKETA



ANDOAINGO GUDUA

Sarrera doan
Ordulegia:
Astefeneetik ostiralera: 18:30 - 20:00
Larunbatetik: 10:30 - 13:30 / 18:00 - 20:30
Bisitaz gidatuak
Izasa emateko: 943 303 540 - basteroataria@andoain.eus

Babesle:



ANDOAINGO UDALA
Hezkuntza eta Kultura
Batzordea

Aholkularitza:



BASTERO KULTURGUNEO ERAKUSKETA ARETOA

Ohar: Oinarriaren Europako Jarduera 2014-2020
 Europako Erakundeak / European Union





Martxoan Eli Pagola kantuan aritu zen Sahararen aldeko saioan, Andoaingo Basteron. Argazkia Alaia Martinekin batera. AIURRI

"Nork bere modura egiten du topo bertsozaletasunarekin"

Errimez nahiz doinuez gozatzeko parada ematen du Urnietako helduen bertso eskolak. Hirugarren urtez jarraian, bertsoarekin hartu-emana izateko aukera izango dute urnietarrek, Eli Pagola bertsolariaren gidaritzapean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ikasturtea hastearekin batera ekin dio Urnietako bertso eskolak klaseak emateari hirugarren urtez. Zein nolako harrera izan du?

Hala da, 2018. urte hasieran ekin genion bertso eskolari, eta, hurrezkerok, oso harrera ona izan

du urtero, behar bati erantzuten dion seinale. Aurten ere taldea osatu dugu; astean behin elkartuko gara. Urnietaren gisako herri batean taldea sortzeak aditzera ematen du harrera ona duen ekimena dela bertso eskola.

Eskualdeko bertsozaletasuna sustatzeko asmoz egin zenuten Urnietan bertso eskola irekitzearen aldeko apustua. Hutsunerik sentitzen al zenuten?

Herri bertsozalea da Urnieta. Badago afizioa, beharbada, bertsolari baino gehiago, bertsozale

izatekoa. Hainbat urnietar ibili dira Hernaniko bertso eskolan, eta plazaz plaza ere banuen zenbaitekin harremana. Beraz, nire ustez, egokia zen Urnietan bertan eskola sortzea. Ez dakit hutsune bati erantzuteko zen ala ez, baina ondo zetorkion herriari, eta horri erantzunez sortu zen.

Aipatu duzun bezala, beraz, bertso eskolak agerian utzi du Urnietan ere badela bertsozalerik, ezta?

Agerikoa da, bai; bertso eskola sortu aurretik antzematen zen hori. Ondoren ere, ez nuke esango herriko zaleak bertso eskolara gerturatzen direnak soilik direnik. Antolatzen diren zenbait ekimenetan, interesa azaltzen da herritarren partetik.

Eskolan bertsozaletu diren horetan trebatzen jarraitzeko aukera bermatzen die helduen bertso eskolak, ezta? Era berean, beste askok lehenengoz bertan egingo dute harremana bertsoarekin...

Nork bere modura egiten du topo bertsozaletasunarekin; etxetik datorkie hainbati; beste batzuek, aldiz, eskolan izaten dute lehenengoz harremana bertsolariarekin; eta, bada, bertso munduan gehiago trebatzeko asmoz, bertso eskolan sartzen denik ere. Nire ustez, gaur gaurkoz, gure klasean, nor bere eremutik, kezkatik dator. Bertsoa oso toki eta modu ezberdinean jasotako jendea biltzen gara.

Adinari dagokionez ere, askotariko jendea bildu ohi zarete klaseetan. Aberasgarria, ezta?

Bai, bakoitza bere bizi momentuan egon arren, bateragarriak dira guztiak. Aldi berean, beste hainbat faktore ere gehituko nizkioke adinari: generoa zein bertsoa bizitzeko era, tartean. **Zenbaitetan, erraza egiten ez zaigun arren, horrek ematen dio xarma herriko bertso eskolari.**

Hirugarren ikasturtea betetzera goaz; bertso eskolak zer bait ematen digunaren adierazle: izan deskonektatzeko aukera gisa, lagunen artean biltzeko, edo doinu eta errimak estutzeko. **Labur aipatuta, zer ikasiko du bertso eskolara gerturatzen denak?**

Nire buruari dinamizatzaila deitzea dut gustoko. Gure martxa zein den ikusita, ikasteko baino gehiago, praktikatzeko aukera ematen digu bertso eskolak. Astean behin ordu eta erdiz elkartu eta hizketaldiak izaten ditugu, baina bertso neurrian sartuta.

Interesa duen orok, non eman dezake izena?

Aukera zuzenena niri deitzea da: 669 068 388 zenbakira. Bestela, bertso eskolara gerturatzea ere beste aukera bat da; esku zabalik hartuko dugu. Astean behin elkartzen gara, arratsaldeko 18:30etik 20:00tara. Maila ez ematearen beldur da jende asko; bertsoak aukera ematen du kolektiboki ariketak egiteko, baina, era berean, lanketa pertsonaletik ere asko dauka: zuk zure maila daukazu eta maila horretatik osatuko duzu zure bertsoa, nahiz eta aldamenekoa askoz hobea ala okerragoa izan. Elkarrekin egin behar den ariketa bat da baina zuk zure ekarpena egin behar diozu. Askotariko ariketak egin daitezke bertso eskolan, eta maila ezberdinak aldi berean jarduteko aukera asko ematen dituen praktika da bertsolariak.

"BERTSOA OSO MODU ETA TOKI EZBERDINEAN JASOTAKO JENDEA BILTZEN GARA"

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazioa.
- Sartu, **Aiurri Urnieta** edo **Aiurri Andoain** kanalean.
- Batu zaitetz eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Segurado alkatea, Gonzalez (PSE-EE), De Miguel (EH Bildu), Ledesma (On Bizi), Goikoetxea (Ikertalde) eta Rosco (EAJ-PNV). AIURRI

Merkataritza sustatzeko plana aurkeztu dute Urnietan

Urnietako Udalak Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia garatuko duela iragarri zuen astelehen goizean deitu zuen agerraldan. Plana Ikertalde enpresak garatuko du eta hori garatzko herriko merkatariei parte hartze "aktibo eta zuzena" eskatu diete

Jon Ander Ubeda URNIETA

Planaren xehetasunak azaltzeko David Rosco merkataritza alorreko zinegotziari hitza eman aurretik, Jorge Segurado alkateak helburua zein izan beharko lukeen agertu zuen: "Oso argi dugu merkatariekin dugun elkarlanak izan behar duela etorkizuna hobetzeko bidea. Beraiekin batera lan egin behar dugu".

Roscoren ustez, "merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektore erakargarria izateak, herritarrei bizi kalitatea eta herri

dinamismoa eskaintzen die. Era berean, gertuko zerbitzu eta merkataritza eskaintza zabala izateak herritarrek Urnietan kontsumitzea errazten du; eta horrek herriari izaera biziagoa eta erakargarriagoa ematen dio".

ON LINE SALMENTAK ETA PANDEMIAK PARADIGMA BERRIA SORTU DU EROSLE ETA SALTZAILEEN ARTEAN

On line bidezko merkataritzaren garapenak eta bizi dugun pandemiak paradigma berria sortu du, erosle eta saltzaileen arteko harremanei dagokionez. Udalak sektorea berregokitzeko eta lehiakortasuna hobetzeko prozesu bat behar duela uste du eta, horretarako, Urnietako Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia jarri du abian.

Askotariko ekintzez osaturik egongo da plana, hurrengo hilabeteetarako programatuta daudenak.

"Askoren artean, kontsumitzaileen eskaria zein den aztertuko dugu"

GORKA GOIKOETXEA IKERTALDE



AIURRI

"Azpimarratu nahi dut hau merkataritza sektorea indartzeko bide-orrria izango dela. Bertan diseinatuko dira sektorearen dinamizazioan eragina duten eragile guztiei dagozkien ekintzak: Udalarri dagozkion ekintzak, sektoreari dagozkionak, elkarteari dagozkionak..."

Plana diseinatzeko hainbat fase definitu ditugu.

Lehenengoa eskaintzaren analisia egitea izango da. Zer eskaintzen da Urnietan?

Sektorearen bilakaera aztertuko da. Eta horrez gain sektorean galdeketa egingo da. Bertan

ikusiko dugu zein den Urnieta merkataritza eta ostalaritzaren profila. Besteak beste, adina, forma juridikoa... Hainbat aldagai aztertuko dira. Taldeko bilerak deituko ditugu, parte-hartze zabala sustatu nahi baita. Honekin batera hiri espazioaren azterketa egingo dugu. Nola konfiguratuta dago Urnieta? Zein irakurketa egiten dugu? Hirigintzari dagozkion hainbat faktore aztertuko dira.

Bestetik, eskaria aztertuko da. Urnietako kontsumitzaileen eskaria zein den aztertuko da. Inkesta batzuk egingo ditugu jakiteko zer erosten den herrian, zer kanpoan... Kalean egingo dira galdeketa. Ikuslego bat karakterizatzea dugu helburu, eroslearen ezaugarriak zeintzuk diren jakite aldera.

Guztia aztertuta diagnostikoa egingo dugu, Urnietako merkataritza eta ostalaritza sektorearen ahuleziak eta indarguneak aipatuz. Plan honekin hainbat ardatz zehaztuko ditugu, eta horiek kudeatzeko mekanismoak diseinatuko dira".

"Planarekin non eta nola hobetu ikusiko da"

AINZANE LEDESMA ON BIZI ELKARTEA



AIURRI

"Merkatarientzat PERCOa delakoa garrantzitsua da, ezaguna baita Urnietako merkataritza kili-kolo dabilela. Horri esker non hobetu eta nola ikusiko da. Udalarekin plana garatzea adostu genuen, beraz, merkatarion eskuetan dagoen guztia egingo dugu. Garrantzi handikoa da udaletxearekin elkarlanean aritzea, guztion konpromisoa delako. Herritarrek kale eta telefono bidezko inkestetan parte

hartzera gonbidatu nahi ditugu, oso garrantzitsua baita merkatarientzat eta herriarentzat. Analisi zehatzena edukitzea eta haiek barneratzea behar dugu".

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

OLAGAINGO BI BIZILAGUN ANDOAIN

Azken egunetako lapurreten harira

Andoaingo bizilagunak garenez, ez gara gure herrian jazotako azken gertakarietatik kanpo geratzen. Horregatik, lehenik eta behin, babes mezu bat bidali nahi diegu etxean lapurreta bat jasan duten familiei. Badakigulako gaizki pasatuko zutela.

Denok elkar ezagutzen dugun herri txiki bat garelako, eta ziur gorabehera horietako batzuk hurbiletik tokatu zaizkigula, beharbada hurbilegi.

Bestalde, andoaindar guztiei neurri egokiak har ditzatela aholkatzea, lapurrek delitu-ekintzak egin ez ditzaten. Ateei erreparatzea eta silikonazko markak edo hondarrak bilatzea. Atariak irekita ez uztea edo ezezagunei sartzen ez uztea. Auzokoen artean lan egin behar dugu posta jasotzeko, etxetik

kanpo bagaude, adibidez. Laburbilduz, haien ekintzak zailtzea da helburua.

Eta, era berean, gure Udalarri eskatu nahi diegu Andoaingo biztanleen segurtasuna bermatzeko eskura dituen baliabide guztiak erabil ditzala, eta ahal duen guztia egin dezala herri-tarren lasaitasuna lortzeko.

Auzo seguruak nahi ditugulako, eta lasai bizi nahi duten bizilagunei begira, Andoain osatzen duten estamentu eta pertsona guztien laguntza eta elkarlana eskatzen dugu.

UDALARI ESKATZEN DIOGU SEGURTASUNA BERMATZEKO ESKURA DITUEN BALIABIDE GUZTIAK ERABILTZEA

OHARRA

ANDOAINGO UDALA ANDOAIN

Lapurreta etxebizitzetan barruan

Andoaingo Udaltzaingoak ohartarazi duenez, azken egunotan hainbat lapurreta izan dira etxebizitzetan.

Asteazken arratsaldean, irailaren 8an, Udaltzaingoak Galar-di kaleko bigarren solairura eskalatzen sartu ziren bi pertsona atxilotu zituen.

Gaur goizean –irailak 9, osteguna–, Udaltzaingoak beste hiru pertsona atxilotu ditu, goizaldean Aita Larramendi kaleko bi etxebizitzetan gutxienez hiru pertsonak lapurreta egin dutela jakin ostean. Atxilotzeko unean, lapurtutako materiala zeramaten.

Horregatik guztiagatik, herri-tarrei kontu handiz ibiltzeko eskatzen zaie, lapurreta gehiago ez egiteko.

POSTONTZIA

SORABILLA-ERROTAGAIN AUZO ELKARTEA ANDOAIN

Udal gobernuarekin bilera

Sorabilla-Errotagain auzo elkar-tea Andoaingo Udaleko gobernuarekin elkartu da gaur (irailak 10 ostirala) eta garbi adierazi dizkio ondoko gai hauek:

1. Sorabilla dela andoaindarrek duten arnas-gune eta aisialdi gune garrantzitsuetako bat eta babes berezia behar duela beste auzoek bezala.
2. Andoaingo errepede nagusien lotuneak berritzeko gaiari buruz argi utzi nahi diegu udaleko agintari eta alderdi guztiei, auzotarron borrokari esker baztertu zela “Andoain-

go saihesbidea” deitzen den proiektua, eta proiektu hori ezin dela inolaz ere ezertarako kontutan eduki.

3. Bestalde, lehenengo puntua kontutan edukiz, adierazi nahi dugu, ezin dela “Erretore-etxe” ondoan errotondarik egitea onartu, auzorako irisgarritasuna erabat baldintzatzen delako sarrera-sarreraren ikaragarritzko oztopo hau ezarritik. Udal agintariei azaldu diegu prest gaudela proposatutako irtenbideak edo sor daitezkeen berriak elkarrekin aztertzeko.

"ARGI UTZI NAHI DUGU ANDOAINGO SAIHESBIDEA EZIN DELA INOLAZ ERE KONTUTAN EDUKI"

"PROPOSAMEN BERRIAK ELKARREKIN AZTERTZEKO PREST GAUDELA ADIERAZI DIEGU AGINTARIEI"

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Aile batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz



Udal ordezkariak eta Berdintasun saileko teknikaria, aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Jabekuntza eskolaren edizio berria, martxan

Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak udazkeneko egitaraua aurkeztu du. Berrikuntzen artean laru ikastaro berri: lantegi erotikoa, elektrizitate lantegia, kosmetika naturaleko lantegia eta gorputzaren mugimendu askeari buruzkoa

Erredakzioa ANDOAIN

Egun hauetan Andoaingo etxebizitza guztietara iristen ari da Jabekuntza Eskolaren programazioa biltzen duen eskuorria. Doakoak dira ikastaro guztiak, eta beharrezkoa den kasuetan haurren zaintza-zerbitzua eskainiko dute. Maider Lainez Andoaingo alkatea, Petri Romero Berdintasun zinegotziak, eta Mari Jose Izagirre eta Teresa Santana zinegotziek eta Sandra Barrenetxea berdintasun teknikariak hartu zuten parte aurkezpenean. Gogorazi zuten, Jabekuntza Eskolaren helburua da "emakumeei laguntzea beren buruaz jabetzen, autoestimua eta beren gaitasunak lantzen, eta emakumeei dagokien espazioa ezagutzen eta berreskuratzen".

Lainez alkateak gaineratu zuenez, "prozesu kolektiboak, elkarriketarako, hausnarketarako eta hazkunderako espazioak bultzatu nahi ditugu, berdintasunezko gizarte lortzeko, hori guztia eskubideen ikuspegiari

oinarrituta. Horregatik guzti-guztiak, Andoaingo emakume guztiak gonbidatzen ditut ikastaro hauetan parte hartzera, eskaintza zabala eta askotarikoa baita".

Lau ikastaro berri

Urte urte egin izan diren zenbait ikastaro mantendu egingo dira (autodefentsa feminista, batukada feminista, tertulia feministak, eta, jatorri anizteta emakumeen elkargune multikulturala).

Beste batzuk, lehenengo aldiz jorratuko dira, lau, hain zuzen: lantegi erotikoa (gorputzaren eta desioaren arteko harremana ezartzeko tailerra), elektrizitate lantegia (autonomia eta auto-

BATUKADA TAILERRA URRIAREN 4AN ABIATUKO DA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA 5AN

gestioa lantzeko), kosmetika naturaleko lantegia (gure kosmetikoak modu erraz eta ekonomikoan egiteko jatorri naturaleko osagaien erabileran eta propietateetan sakontzeko), eta, gorputzaren kontzientzia mugimendu askean. Jabekuntza.andoain.eus webgunean aurki daitezke xehetasun guztiak.

Izena emateko edo informazioa eskatzeko lau bide daude:

- Webgunea: jabekuntza.andoain.eus.
- Telefonoa: Andoaingo Udaleko Berdintasun Saila: 943300830, ext. 380-397.
- E-posta: berdintasuna@andoain.eus.
- Aurrez aurrekoa: Andoaingo Udaleko Ataria zerbitzua.

EMAKUMEA ETA KIROLA HIZPIDE HARTUTA, TERTULIA FEMINISTA ANTOLATU DUTE



Udal ordezkariak eta eragile ezberdinak elkartu ziren aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Alzheimerre ardatz hartuta, ekitaldi bikoitza Andoainean

Gizarte Zerbitzuetatik bideratu da ekimena, Bertxin eta Santa Krutz adinekoen elkartearen lankidetzarekin

Erredakzioa ANDOAIN

"Alzheimerrekin elkarbizi" izenburuko hitzaldia eskainiko du Koldo Aulestia AFAGI elkarte lehendakariak, datorren irailaren 21ean. Eta handik bi egunetara "Vivir dos veces filma" eskainiko dute. Bi ekitaldi horien eskutik, irailaren 21ean ospatzen den Alzheimerrearen Munduko Eguna gogoan hartuko dute.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Maider Lainez alkatea, Andoni Alvarez EH Bilduko zinegotzia, Alex Huitzi EAJ-PNVko zinegotzia eta Gabi Rivero Ahal dugu-Podemoseko ordezkaria. Haiekin batera izan ziren Juan Medina, Eloi Artolazabal eta Jose Luis Crego Santa Krutz jubilatuen elkarte kideak eta Nemesio Zatarain eta Maria Teresa Iru-retagoiena Bertxin jubilatuen elkarte kideak.

Andoaingo alkate Maider Lainez azpimarratu duenez, "garraztitsua da Alzheimerre gaixotasuna modu integral eta globalean kontuan hartzea, alegia, alderdi sozial, sanitario eta ekonomiko guztietan. Hori dela eta, Andoaingo Udalak konpromisoa hartzen du Alzheimerre duten gaixoak, haien familiak eta zaintzaile nagusiak zaindu, babestu eta laguntza emateko".

BI EMANALDIK DOAKOAK DIRA, BAINA AURRETIK GONBIDAPENA ESKURATU BEHAR DA

Hitzaldia Bastero Kulturunean, irailaren 21ean

"Zaintzen bazara, Alzheimerre atzera pauso bat egiten du" lelopean antolatu dira bi jardunaldiak. Koldo Aulestia AFAGI Gipuzkoako Alzheimerdunen eta bestelako Dementziadunen Senitartekoen eta Lagunen Elkarte lehendakaria da 2003az geroztik, eta baita ere CEAFako Alzheimerre duten Senideen Elkarte Espainiako Konfederazioko lehendakaria.

Datorren irailaren 21ean hizlari lanetan ariko da Basteroko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 18:00tan hasita.

Zinema Bastero Kulturunean, irailaren 23an

Maria Ripoll zinema zuzendariak egin du komedia eta drama tarrekatzan dituen "Vivir dos veces" filma, eta bere sinopsiak hara zer kontatzen digun: "Emiliok (Oscar Martinez), Julia alabak (Inma Cuesta) eta Blanca (Mafalda Carbonell) bilobak bidaia zentzugabea eta aldi berean adierazgarria egingo dute. Emiliok oroimenak behin betiko huts egin baino lehen, familiak gaztaroko maitasuna bilatzen lagunduko dio. Bidean, amarririk gabeko bizitza berri baterako aukera aurkituko dute".

Zinema emanaldia datorren irailaren 23an izango da. Hori ere Basteroko ekitaldi aretoan izango, 18:00tan hasita.

Bi kasuetan doakoa da sarre-ara, aforoa bete arte. Gonbidapena eskuratu behar da.



Aiurri.eus, unean uneko albistegia




Azken ordukoak



Argazki-bildumak



Egunean egunekoa




Kirol albisteak



Lehen sektorea



Agerraldiak



Bideoak



Agenda



Koronabirusa



Begoña Beobide, Maribel Garmendia, Ines Medina, Elena Iertxundi eta Juanita Iktza jostunak hurbildu ziren irailarren 10eko aurkezpen ekitaldira. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Emakumeek gerretan bizi behar izan dituzten zorigaitzoko bizipenak biltzen ditu erakusketak, batik bat. Makina bat argazki, ilustrazio, jantzi, armamentu, testu eta kronika topatuko du erakustokira hurbiltzen den ikusleak. Izan ere, horiek denak bildu behar izan zituen Andoaingo Guda ikuskizuneko antolakuntzak, 1837ko irailaren 14an karlistek eta liberalek Andoainin egin zuten borrokaldia kalean irudikatu eta antzezterako orduan.

Txitxu Ruiz Andoaingo Udaleko kultura zinegotziak irekiera ekitaldian hitza hartu zuen, eta eskerrak eman zizkion Larramendi Bazkunari, “urteak joan eta urteak etorri, Andoaingo historia gaurkotzeagatik”. Gaineratu zuenez, begirada berezi batekin egin da erakusketa, “emakume ahots isila plazaratu nahian, emakumeek historiako pasarte horretan bete zuten papera balioan jarri nahian. Erakusketa izan dadila emakume haien omenaldia”.

Ane Jalon Larramendi Bazkuneko lehendakaria mintzatu zen ondoren. Basteroko irekiera ekitaldira hurbildu zirenei, honako ariketa txikia egitea proposatu zien: “Gogora dezagun gure memorian, urtetan gorde-

Merezi duen erakusketa

1837ko Andoaingo Gudua emakumearen ikuspegitik islatzen duen erakusketa ostiral arratsaldean ireki zuten, Basteron. Datorren irailaren 25era bitarte zabalik egongo da erakusketa



Aitor Amutxastegi, Juankar Erasun eta Rosa Elozegi antzezleak, erakusketaren aurkezpen ekitaldian. AIURRI

ta egon diren txikitako gerraren gaineko ipuin, ilustrazio edo pelikulak. Ziur gaude, zuen memoriaren zati horretan, pertsona gehien-gehienak gizonaekoa direla. Halaxe erakutsi izan baitzaigu urtetan: gerra, gizonen arteko kontua dela. Era berean, emakumeak desagertu izan zaizkigu gure begi aurrean. Bada, iruditeria hori dantzatu nahi izan dugu; beharrezkoa jo genuen, behingoz, argia ematea lubakia- ren aldi ilunean zeudenei, emakumei. Gerra guztietan egon baitira emakumeak, izan barruan, edo atzean...”.

Gerrak aipatu orduko maiz erabiltzen den albo kalteen kontzeptuaren gainean gogoeta eginez jarraitu zuen Jalon Bazkuneko lehendakariak: “Entzun dugu gerraren albo kalteak jasan behar izaten ditugula emakumeok. Baina albo kalte- tuak ez, zuzeneko kaltetuak izan gara emakumeok. Eta mendetan zehar jasan behar izan ditugu bortxaketak, tratu txarrak eta hilketak. Zoritxarrez, itzalaren alborik ahaztuenean utzi dira ankerkeriari handienak”.

Jostunak, jotasu lanean

Joskintza tailerrak leku bat hartzen du erakusketan, eta azken urtetan Andoaingo Gudua- ren antzezpenean ezinbestekoak izan diren zenbait jostun bertan aritu ziren lanean, erakusketaren irekiera ekitaldian. Begoña Beobide, Maribel Garmendia, Ines Medina, Elena Iertxundi eta Juanita Iktza dira jostun horiek. Hurrengo eguntan bertan lanean jarduteko eta nahi duten ikusleekin hizketan aritzeko tarte hartzeko gogo- ere adierazi zuten.

Kale antzerkiko pasarteak

“Andoaingo Gudua” kale antzerkiko zenbait pasarte antze- zu zituzten Aitor Amutxastegi, Rosa Elozegi, Juankar Erasun, Mikel Agirregomezkorta eta Julio Nogales antzezleak. Hain zuzen, kale antzezpene- tik bi pasarte txiki eraman zituzten Basteroko erakusgelara, bata Zumea Plazan eta bestea Goikoplazan gertatzen direnak. Atanaxi emakume zelataria pertsona- jeara da protagonista nagusia, eta hura Rosa Elisegik interpre- tatu zuen Basteron.

Aurkezpen ekitaldi osoa bideoz ikus daiteke Aiurri.eus webu- nean. Baita argazki-bilduma ere.

Baserritarrak: 24, 7, 365

Azken asteetan baserritarrek zer esana eman dute, burutu dituzten protestak medio; produktuen salneurri eskasa eta, ondorioz, jasotzen dituzten etekin murrizte lehen sektoreko abeltzainak ezandarazi ditu

Mikel Arberas ANDOAIN

Uda eta oporraldiak amaitzea rekin batera ikasturte berria agurtu beharra dago. Berrero ere lanari eta ikasketei ekiteko prest daude milaka eta milaka herritar. Oporraldiak deskantsurako eta deskonektatzeko erabili ohi dira; baina nork hitz egiten du udan ere lanean diharduten langileez? Esaterako, baserritarrak, abeltzainak eta nekazariak ikusezinak bilakatzen dira sarritan.

Abuztuaren 25ean Esne Martxa delakoa egin zen eskualdean, elikagaien prezioa eta balorea aldarrikatzeko, eta euren egoera zaila salatzeke. Herritar ugari ez dira jakitun kontsumitzen diren produktuak urte osoan lanaren fruitu direla; izenburuan ageri den bezala, goizean hasi eta gauean amaitzen dena, asteke zazpi egunetan eta urte osoan landu behar da. Azpi-sektorearen arabera, lanaldiak ezberdinak izan daitezke, baina lanaldiak gogorak eta luzeak dira, ezin uka daitezke.

Baserrian lan egiten duenak goizean goiz esnatu behar du, egiten duen antolamenduaren arabera 05:30 eta 06:30 bitartean; eta gauean amaituko du laneguna, agian gaueko 22:00tan. Noski, ez da gauza bera esne behien zaintza ala ardiena; behar bada, bata bestea baina apur bat lan handiagoa eskatzen du. Dena den, 10 orduko lan jardunaldia egitera ailegatu daitezke, gehien-goia lan fisikoa dela kontuan

**BASERRITARREK
BURUHAUSTE UGARI
EDUKITZEN DITUZTE
ALDERDI
EKONOMIKOAREKIN**

edukita. Gainera, behiak eta ardiak animaliak dira eta baserritarren bizibide, gauzak horrela, urte osoko lana eskatzen du, ezinbestekoa baita horiek ondo zaintzea: janaria eman, erditzeetan lagundu, identifikazio lanak egin edota gaixotasunak ekidin behar dituzte. Laburbilduz, ondo zaindutako animaliek produktu ona bermatzen dute, baina horrek lan izugarria eskatzen du, askotan diruz ondo ordaindua ez dagoena.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, baserritarrek buruhauste ugari edukitzen dituzte. Testuinguruan jartzeko, abereak bi modutara elikatu daitezke: batetik, etxeko burujabetza bilatuta, hau da, lur sailletako belazeak baliatzen dituzte; bestetik, produkzioa bilatu nahi dutenak daude eta, horretarako, pentsuaz elikatzen dituzte abereak. Baserritarren esanetan, elikatzeke moduen arteko aldea handia da; pentsuak produkzioarako bultzada askoz ere handiagoa ematen du, baina, era berean, garestiagoa da.

Datuetan murgilduta, batz bestea tonelada bat pentsu 325 euro balio du, iaz baino askoz gehiago. Hau da, pentsuaren prezioa %11tik gora igo da urtebetean. Hilabetearen arabera, portzentaia handitu egin daiteke. Gainera, azpimarratu beharra dago, 600-700 kilogramoko esne behi batek 23-26 kg materialer hori jan dezakeela –pentsua eta belarra nahastuta egin daiteke-. Hortaz, demagun behiek egunero 10 kg pentsu jaten dutela –belarrekin nahastuta-; bada hilabetean 9.100 eurotik gora gastatu beharko lukete baserritarrek. Kontuan edukita pentsuaren prezioa, arestian azaldu bezala, aldakorra dela. Guzti horri, ohiko gastu guztiak gehi-

tu behar zaizkio; hala nola argia, ura, zaintzarako tresnak edo erregaia. ENBA sindikatuko lehendakaria den Iñaki Goenagak argi esan zuen, “badira dirua galtzen duten baserritarrak, kostuak handiagoak direlako jasotzen dituzten irabaziak baino”. Agian, neurri txikiagoan, baina antzerakoa jazotzen da ardiekin ere.

Konplexua da baserritarren lana, lehen aipatutako guztiaz gain, denbora libre gutxi dutelako. Egutero egin behar dute lana eta ekoiztako produktuen arabera, eguneko jardunaldia oso luzea izan daiteke. Zera esan nahi da, baserritarrek ekoiztako lehenagaia produktu propioa egiteko erabil dezaketek, esaterako, gazta; hauek memento batzuetan 16 orduko jardunaldiak egitera iritsi daitezke. Beste aukera bat, lehenagaia saldu eta produktua enpresa batek egitea izan liteke. Hemen ere dikotomia batean sartzen da baserritarra, hau da, etekin handiagoa lortu dezakete lan ordu gehiago eginez, ala diru gutxiago jaso produktua beste batzuek ekoiztearren.

Baserritarrek, abeltzainek eta nekazariak lan handia egiten dute bertako produktua ekoizti eta herriratzeko; era berean, jasotzen duten etekin ekonomiko murrizta da, jakinda batzuetan dirua galtzen dutela. Gainera, enpresa handiek prezioen konpententzia baliatzen dute horiei gutxiengoa ordaintzeko. Horregatik, supermerkatuetako esnearen gutxiengoko salneurria 10 zentimo handitzea eskatu dute, galera ekonomikoak ez pairatzeko. Aipatutako guztiaz, azken hilabeteetan hainbat elkarretaratze, protesta eta agerraldi egin dituzte.



Abuztuaren 25eko manifestazioa. AIURRI



Urnietako
udala



Aurrean Beldarrain-Iriondo familia, argazkilari bat ondoan zutela. Atzean, Joxe Amado eta familia. Bi artaldeak Aralar aldetik zetozen, Xoxokarako bidean. Argazkiak eta bideoa ikusgai daude Aiurri.eus gunean. AIURRI

Ikusgarri bilakatu da iraganean ohikoa zena

Inma Iriondo eta Mikel Beldarrain Adarrazpi gaztandegiko nagusiak dira, eta egun hauetan mendialdetik Urnietara eraman dute artaldea. Andoaindik barrena igarotzean sortzen zen irudia ikusgarria zen. Ez da hain ohikoa eta horregatik da hain ikusgarria

Erredakzioa ANDOAIN

Belarrira iristen zen ardi zintzarrien hotsa. Ikusi aurretik, artaldearen etorrera entzuten zen. Begirada soinura eraman eta hantxe agertzen ziren, begien aurrean, dozenaka buru. Artaldea gidatuz, Erroitiz kalean barrena, Inma Iriondo eta Mikel Beldarrain zetozen. Gauzak ondo zehazte aldera, bi artaldek batera igaro zuten Andoain. Urnietarrena eta Andoaingo Jose Amado eta euren familiarena.

Aralar aldetik zetozen, Xoxokarako bidean. Irailaren 1ean abiatu ziren eta Baraibar eta Lekunberri zeharkatu ondoren, Leitzan geldialdia egin zuten. Ondoren, Plazaola-Leitzaran naturbidean sartuta, Xoxokarako bidea hartu zuten. Erroitiz kalean hasi eta Xoxokarako bidea udaltzainek lagunduta egin zuten. Irudi ikusgarriak aiurri.eus gunean ikusgai daude.

Duela ia hogeita urte ez ohiko bidea egin zuen Mikel Beldarrainek. Tailerreko lanak utzi eta artzain egin zen. Prozesu bat izan zen, eta dagoeneko Inma Iriondoekin batera abian jarritako ekimena fama handiko gaztandegia bilakatu da. Azken urteotan, gainera, tailerrak eta erakustaldiak antolatzen dituzte baserrian. Esperientzia polita da, bertako eta kanpoko bisitarien arreta bereganatzen duena.

Adarrazpi 2005ean sortutako ardi latxa artegia da, Urnietako Goiburu auzoan kokatutakoa. Hauxe euren ekimenaren aurkezpenean irakur daitekeena: "Maneju estentsibo bat egiten dugunez, artaldea neguan Urnietan bazkatzen da eta udan Aralarren. Esneki guztiak gure etxeko esnearekin eginda daude eta, gaztandegian bertan eta goizero Donostiako San Martin azokan aurki ditzakezu".

Andoni Urbistondo URNIETA

Pasa den larunbatean egin zuen publiko bere agurra Mikel Alonsok (Urnieta, 24 urte). Etapa bat itxi du bere bizitzan, hamabost urtekoa, bizikletari emandakoa. San Juan plazan batzartu da Aiurriekin, eta agerikoa da ez dagoela ohituta kamara aurreko elkarrizketetara. Malako batzuk ere isuri ditu, erantzunen batean, bidelagun izan dituen guztiak gogoan. Baikor da, ikasketak ditu begiz jota, eta kirol berriak probatzen hasia da dagoeneko.

Ziklo bat bukatutzat ematea erabaki duzula iragarri zenuen pasa den astean sare sozialetan. Zergatik hartu duzu txirrindularitza uzteko erabakia?

Beno, betidanik asko gustatu izan zait txirrindularitza, baina profesioaletara pasa nintzenetik kontrakarrean ibili naiz urtero, lesioen bat beti, gustura ezin aritu. Ilusioa galtzen ere joan naiz pixka bat, profesional bizimoduak eskatzen duen egunerokoarekin: gogor entrenatu, zaindu, eta bizikletan bakarrik pentsatu behar hori. Aurten ezker hankan arazo fisikoak izan ditut, ziatika antzeko bat. Hankak lo hartzen zidan mendian gora hasten nintzanean, eta muga hori izan da erabakia hartzera eraman nauen azken arrazoia. Hilabete pasa daramat ja bizikletan ibili gabe, eta gertukoek bazekiten ez nuela tropelean jarraituko.

Nola esan zenien etxekoei, neska-lagunari, koadrilako laguneri?

Erabakia zaila izan da. 15-16 urte eman ditut bizikleta gainean, eta ilusio handia neukan profesioaletan bidea egiteko, lorpenak izateko. Ez da posible izan, eta pena handia hartu dut, nire bizitzako erabakirik zailena izan da. Jarraitu, edo ez jarraitu, damutuko nintzela banekien, baina uztea erabaki dut. Pertsonalki erabaki ona da, pertsona bezala askeago sentituko naizelako aurrerantzean, gehiago haziko naiz. Etxean babes handia eman didate. Bai gurasoek, anaiak, neska-lagunak eta koadrilako lagunak. Bereziki eskertu nahi nieke gurasoei eta anaiari eman didaten babesa, bai onean, bai txarrean. Haiak gabe ez nuke lortuko iritsi naizen lekura iritsiko. Beti animatu naute, eta azken erabaki hau hartu dudanean ere bai.

“Profesional baten bizimodu zorrotzak eramán nau agurrera”

MIKEL ALONSO EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO TXIRRINDULARIA

Lau urte egin ditu profesioaletan, Euskaltel-Euskadi taldean, baina lesioak eta profesional bizitza zorrotzak ilusioa lapurtu diote; ikasten hasi da, eta beste kirolak probatzen



Mikel Alonso, astelehen goizean Aiurri eskainitako elkarrizketan. **AJURRI**

Bizimodu profesionalaren exigentzia aipatu duzu. Zehaztu zenezake gehixeago?

Txirrindulari profesionalaren bizitza estiloa gustukoa izan behar duzu, irauteko. Ez da bakarrik egunero ordu batzuk entrenatu behar izatea, zaindu egin behar duzu, atsedena hartu... Bizikletarekin eta bizikletarentzako bizi behar duzu, eta horrek energia asko kontsumitzea dakar. Izan liteke zenbaitzuk dohain edo gaitasun horrekin jaiotzea, baina ez da nire kasua izan, motibazio handia behar duzu. Ez naiz bakarra. Hor dago Tom Dumoulinen kasua, milioi euroko soldata izan, eta bizikletarekin nekatu, kito esan behar uneren batean. Txirrindularitza, agian, ez da uste dena bezain polita edo erraza. Diziplinatua izan naiz, baina ni bezalako gazte guztiak bezala disfrutatu nahi izan dut. Disfrutatu diot, ba lagunekin terrazaren batean egotea arratsetan, edota neskarrekin planen bat egin, edo gurasoekin egon. Otorduetan dena neurtu behar hori, bihar sei orduko entrenamendua daukazulako. Zure bizitza programatua dago, eta askotan entrenatzeko gogorik izan gabe, jarraitu egin behar duzu. Eguneroko exigentzia horrek ito du nire kemena. Gure bizitza desberdina da, eta kantopitik, akaso, ez da sumatzen, baina barruan gaudenok badakigu zer dagoen.

Zein balantze egiten duzu? Lau urte egin dituzu profesional mailan, denak Euskaltel-Euskadi taldean.

Niretzat oso ona. Fundazioan korritzea izan da betidanik nire ametsa, bederatzi urte nituenetik, eta lau urte korritu ditut talde horretan. Esan dezaket profesioaletan korritu dudala, eta horrek betetzen nau. Garaipekin ez dut lortu, podiumen bat edo beste bai, alboan ziklista onak izanda. Momentu onak pasa ditut, afizionatu nintzela ere Fundazioarekin aritu nintzen beraiekin, zazpi urte denera. Nire bigarren familia izan da, eta oso une hunkigarriak, politak pasa ditut beraiekin. Emaiztatetik harago, oso etapa polita izan da niretzat.

Zer esan zizun Jorge Azanza kirol zuzendariak, utzi egingo zenuela esan zenionean?

Pena hartu zuen. Espero zuen berria zela esango nuke. Bere babesa eman zidan, bere etxera gonbidatu ninduen bazkaltzera,

eta oso hunkigarria izan zen. Besarkada bat eman nahi zidala esan zidan, eta une polita izan zen oso. Jorge niretzat aita baten parekoa izan da [malkoak isuri zaizkio].

Zein oroitzen on gogoratzen dituzu, ixtear den etapa honetatik?

Ba denetan onena nire lehen kontratu profesionala sinatu nuenekoa, nire urtebetetzea baitzen. Gero Gotzon Martinek garaipena lortu zuenekoa. Nire lagunik onena da, taldean. Emaiztatetik harago, lasterketetako dinamikan egiten dituzun harremanak baloratzen dituzu, sortzen diren sentimenduak lagun batek irabazten duenean. Eta zuk hori lortzeko lana bere alde egin baduzu, ba sekulako sentazioa da. Zuk irabaztea demasa da, baina taldekide batek irabaztea ere bai. Gotzon Martinekin muturrekoka ibili naiz bizikleta gainean jarri nintzenetik, 12 urte nituenetik.

Jorge Azanzaren eskutik egin dugu bidea biok, eta aurrerantzean ere Gotzon bera eta Euskadi Fundazioak korritzen duen lasterketetara joango naiz, taldekideak izan direnak animatza. Txinparta hori bero mantentzen da bihotzean, erretiratu ere.

Txirriindulari profesionalaren errutina faltan botatzeko beldurrik bai?

Bai noski. Botatzen ari naiz, dagoeneko. Hutsa bezala sentitzen ari naiz egun hauetan, ze egunero daukazu erronka jakinen bat, helbururen bereziren bat. Orain ja ez naiz irteten entrenatzera. Urte pilo bat daramatzat egunero gauza bera egiten, inertzia bat hartzen duzu nahi gabe, eta orain, errutina hori gabe, faltan botatzen duzu. Ohituko naiz, dena den.

Zer egingo duzu aurrerantzean?



Mikel Alonso urnietarra, taldeko argazki ofizialean. EUSKALTELEUSKADI

Beno, ingeniariatza mekanikoko ikasketak hasi nituen, eta utzi, bizikletan zentratzeko. Bigarren kurtsoa hiruzpalau ikasgai atera nahiko nituzke aurten, eta gero hurrengo bi kurtsoak. Langabezi saria ere izango dut, gauzak ondo, eta horrekin iraua, ikasketak bukatu arte.

Eta kirol munduan zer?

Ez dakit. Gauza berriak probatu beharko ditut, orain arte egin ezin nituenak. Korrika hasi naiz, baina sekulako hantetako mina jarri zait. Palan ere hasi naiz, lagunekin, baina begira nola daukaten esku-azpia, babaz beteta. Mendira irteerak ere egiten hasi beharko dut lagunekin, eta orduan asko gozatuko dudala uste dut, aisi aukera gustukoa, errendimendua kaltetu dezake-dala pentsatu gabe. Gozamina bakarrrik.

UZE txirriindulari elkarteko lagunek esan didate ongi etorria izango zarela, errelebo batzuk eman nahi izatekotan...

"Pike" nahiko eduki ditut azken urteetan. Orain ondo osatu behar naiz, hankan daukadan gaixotasunagatik, eta gero gerokoak. Bizikleta profesionalki utzi egingo badut ere, berriro ibiltzeko grina sartuko zaidala esango nuke. 15 urtean hain lotura estua izan, eta bat-batean hori atzean uztea erabat, ez da logikoa. Orain buruko atsedean pixka bat behar dut bizikletari dagokionez.

Zerbait gehiago esan nahi duzu?

Etxekoei eskerrak eman dizkiet, baina modu batean edo bestean laguntza eman didaten guzti-guztiei ere nire esker ona, nire ametsa lortzen lagundu didate-lako.

Lau urteko ibilbidea Euskaltelen



Mikel Alonso txirriindularia, Portugal aldean. EUSKALTEL

2018ko uztaila GP Internacional Torres Vedras - Trofeu Joaquim Agostinho lasterketako bigarren etapan hirugarren postuan helmugaratu zen. Portugal aldeko lasterketa horretan urnietarra eta Euskalteleko korrikalariak protagonista bilakatu ziren.



Mikel Alonso txirriindularia, Mallorcan. EUSKALTEL

2019ko otsaila "Oraindik urrun baino aldi berean munduko onenen gertu gure Mikel Alonso atzoko esprimean", argitaratu zuen orduko hartan Euskaltel Euskadik sare sozialetan. Denboraldi hasierako lasterketa zen, Mallorca aldean.



Euskaltel Euskadikoak Burgosen, tartean Alonso bera. EUSKALTEL

2021eko abuztua Mikel Alonso eta Mikel Iturria urnietarrak Euskaltel Euskadi taldeko zazpikoan izan ziren, bost eguneko itzuli gogorrean. Aski ezaguna da lasterketa nazioarteko tropelean, Espainiako Vueltaren atariko modukoa.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Urriza eta Barrenetxea, azken urteotako txapelkunak dira biak. AIURRI

Barrenetxeak irabazi du Kutxabank Sari Nagusia

ERREMONTEA Norgehiagoka parekatua izan zen. Tanto ikusgarriez gozatzeko aukera eduki zuten ikusleek

Erredakzioa URNIETA

Lehen tantoetan Urriza nabarmen gailendu zen bost tantoko aldea ateratzeraino; baina partidua aurrera egin ahala, orekatzen hasi zen. 20. tantotik aurrera, Barrenetxearen gidaritzapean joan zen markagailua, eta bi pilotarien arteko aldea handitzen hasi zen.

Barrenetxearen adierazpenak

"Buruz buruko txapela irabaztean gogoan hartu ditut honaino iristen lagundu didaten guztiak. Azken bi asteetan 800-1.000 sake eta bote laster egin ditut. Izuga-

rri entrenatu dut garaipena eskuratu ahal izateko".

Urrizaren adierazpenak


"Partidua sentsazio onarekin hasi dut. Lehen tantoetan pilota ondo mugiarazten nuen, baina ontzat eman duten falta batengatik kontzentrazioa galtzen hasi naiz. Segurtasuna galarazten dizun tantoa kontuan hartu beharrekoa da, nigan eragin handia izan du. Memento hartatik aurrera, hobeto jokatzeko hasi da Barrenetxea, sakearekin min handia egin du eta nire gainetik igaro da".

"IZUGARRI ENTRENATU DUT GARAIPENA ESKURATZEKO"

BARRENETXEA

"BARRENETXEAK SAKEAREKIN MIN HANDIA EGIN DU ETA GAINETIK IGARO DA"

URRIZA



Urbistondok gonbidatu berezia izan zuen, alboan, final handian. Ansa herrikidea. AIURRI



Julen Gabirondo. UZTARRIA

Pentatloiko finalean da, aurreikuspenak betez

HERRI KIROLAK Julen

Gabirondo irailaren 25ean jokatu den finalerako sailkatu da

Erredakzioa URNIETA

Andoni Iruetagoiena *Izeta VI.a*, Joseba Otaegi, Iñaki Errazkin, Aritz Irazabal, Julen Gabirondo eta Kepa Peñagarikano sailkatu ziren Euskal Herriko Pentatloiko finalerako, Azpeitian larunbatean jokatu zen finalerdian. Aiztondo eta Buruntzaldeko bi eskualdetako kirolariei dagokionez, Joseba Otaegi zizurkildarra bigarren sailkatu zen, berriro ere egundoko erakustaldia eginez. Julen Gabirondo urnietarrak ere finalerako txartela lortu zuen, nahiz eta indarrez nahiko juxtu ibili izanaren itxura eman. Seikoteak finala irailaren 25ean jokatu du, 22:00etan hasita.



Julen Gabirondo. UZTARRIA



EUSKALDUNA

Larramendi txapelketa

FUTBOLA Aurreko asteburuan emakumeen arteko Larramendi txapelketa jokatu zen, Ubitarte zelaian. Mariño, Hernani eta Euskalduna, hiruren arteko lehia izan zen eta Mariño izan zen edizio honetako irabazlea. Denboraldia hastear dira larunbat honetan, Ubitarten bertan arratsaldeko 15:30ean hasiko den partidan.

Liderrak lehen jardunaldian

FUTBOLA Gizonezkoen Erregional Ohorezko Mailak ekin dio denboraldi berriari, eta Andoaingo taldea lehen jardunaldia amaitu eta gero lidergotzan ageri da. Oiartzun taldearen aurka 0-2 gailendu zen. Hasiera ona eman dio, beraz, ligari. Larunbat honetan Hernani taldea hartuko dute Ubitarten, arratsaldeko 18:00tan hasiko den partidan.



EUSKALDUNA



AIURRI

Aurrendenboraldiko txapelketa

ESKUBALOIA Leizaran eskubaloia taldeak adiskidantza txapelketa antolatu zuen aurreko asteburuan, denboraldia prestatzen hasteko baliagarri bilakatu zena. 150 lagunek aforoa onartuta zegoen Allurralden, eta Arraten ere jokatu ziren hainbat partida. Normaltasuna iristen ari da kirol hitzorduetara ere.



Normaltasunaren bidean doaz gizarte bizitzako jarduerak ugari. AIURRI

Udal kiroldegiko zerbitzuak, normaltasunaren bidean

KIROLA Astelehenetik ostiralera gaueko 22:00ak arte kirol esparrua erabiltzeko aukera izango da

Erredakzioa URNIETA

Ordutegi aldaketarekin emango den beste berritasun nagusia hitzorduen ordutegia izango da, izan ere, nagusiki erdietatik erdietara erreserbatu beharko dira. Hau da, 08:30etik 09:30era, esate baterako. Aldez aurreko hitzorduak ezinbestekoa izaten jarraituko du, eta horretarako Udalarren APP-a eta webgunea erabil daitezke. Telefono zenbaki honetara ere deitu ahal izango da: 943 00 83 28. Ordu aldaketak ez du eraginik izango garbiketa eta desinfekzio lanetan, orain arteko

intentsitate berarekin egingo baitira, eraikin osoan higiegi baldintza egokiak bermatzeko. Hortaz gain, babes-neurri guztiek indarrean jarraituko dute eta zorrotz bete beharko dira: higiegi postuak mantenduko dira, musukoa jantzita eduki beharko da momentuoro, eskuak eta erabilgaitako makinak garbitu beharko dira eta nork bere toaila etxetik eraman beharko du.

Igerilekua

Irailaren 26ra bitarte zabalik izango dira Udal instalazioak.



Amaitzear da izen ematea. UTS

Ikastaroetan izena emateko epea amaitzear da

KIROLA Yoga, pilates, gazte funky, zumba, spinninga, tonifikazioa eta fitness aholkularitza

Erredakzioa URNIETA

Irailaren 27an hasiko da ikasturtea eta irailaren 17a baino lehen eman behar dute izena.

Izena emateko aukerak

Sarobe:
943 00 80 42.
Udal Kiroldegia:
943 00 83 28.



"Free as can be" iazko lan irabazlea Urnietan ikusteko aukera izango da. AIURRI

Mendi Film jaialdia Urnietan, datorren irailaren 23an

MENDIA Bost ikus-entzunezko ikusteko aukera izango da Saroben, arratsaldeko 19:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

"Charge 2", "Aterpean ateri", "The Wurl", "Myrtle Simpson: a Life on Ice" eta "Free as can be" ikus-entzunezkoak ikusteko aukera izango da Urnietan, datorren astean. Mendifilm jaialdiak antolatuta, Udalarren babesarekin eta Zanpatuzen lankidetzarekin burutuko da. Guztiak ere iazko sail ofizialean ikusgai izan ziren.

"Free as can be" filmak, gainera, eskaladari buruzko film onenaren saria eskuratu zuen 2020ko edizioan.

"Free as can be"

Jordan Cannon eskalataile gaztea eskaladaren historiarekin maiteminduta dago eta egun batean Mark Hudon ezagutuko du. Mito bat da, Yosemiteko horma handietako eskalada librearen aitzindaria. Elkarrekin, ezohiko taldea osatzen dute helburu komun baten bila: "Freerider" bide ikonikoa El Capitán-en osatzea. Cannonek librean eta egunean eskalatu nahi du. Hudonek, berriz, "El Capitán" eskalatzen adin gehien duen pertsona izan nahi du.

Futbola martxan

FUTBOLA Normaltasunaren denboraldia izatea desiratzen ari dira denak. Horrela izan dadila! Jubenil mailako Urnieta A taldea ageri da argazkian, aurreko larunbatean eginkoa. Zutik, ezker eskuin: Xabi Tolosa, Ibai Mugica, Lander Perez, Axi Azpillaga, Jon Otaegi, Aratz Urdangarin (prestatzaile fisikoa), Javi Pastor (Ordezkarria), Pablo de Torres (Entrenatzailea), David Cuenca (2. entrenatzailea), Egoitz Antolin, Gaizka Izagirre, Ander Goikoetxea eta Markel Morandeira. Behean: Joseba Giganto, Xabi Godoy, Josu Almorza, Ioritz Jimenez, Javier Lucas, Unai De Godos, Beñat Gonzalo, Paul Ruiz, Alain Neves, Iñigo Pascual eta Aimar Labaca.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 16

ANDOAIN Erakusketa

Andoingo Gudua eta emakumeak ardatz hartutako erakusketa antolatuta du Larramendi Bazkunak.
Azken eguna: Irailak 25.

URNIETA Udal zerbitzuak

Errefusaren edukiontzia asteazkenetan eta igandetan bakarrik erabiliko da.
Irailan hasita.

URNIETA Ikastaroak

Lekaioko ikastaroetako eskaintza aurkeztu dute: jostintza, marrazketa eta pintura, eskulanak, egur taila.
Informazioa: Urnieta.eus.
Azken eguna: Irailak 28.

ANDOAIN Lehiaketa

XXV. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa. 10-17 urte bitartekoentzat.
Informazioa: Bastero.eus.
Lanak aurkezteko epea: Urriak 8.

ASTEARTEA 21

ANDOAIN Hitzaldia

"Alzheimerrarekin elkarbizi" Koldo Aulestiaren eskutik. Informazio gehiago 7. orrialdean.
18:00, Bastero.



Iñaki Vergara argazkilaria, bere hainbat lanekin. AIURRI

ANDOAIN Emakumeak eta kirola, argazki-erakusketa

"Kirola emakume kemenez" izenburupean, emakumeak eta kirola uztartu dituzte erakusketa berean. Argazkiak Iñaki Vergara Perezek dira.
Irailaren 17tik 25era, Allurralde kiroldegiko harmailetan.

OSTEGUNA 23

ANDOAIN Filma

"Vivir dos veces" filma. Informazio gehiago 7. orrialdean.
18:00, Bastero.

LARUNBATA 25

ANDOAIN Dantza

"Gazte" ikuskizuna, Hika eta Oinkari konpainien eskutik.
19:00, Goikoplaza.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Descarrilados**

Lar., 18. 19:30, 22:00.
Ig., 19. 19:30.
Astel., 20. 19:30, 22:00.

Space Jam:

Lar., 18. 17:00.

Maixabel

Ost., 24. 20:30.
Lar., 25. 19:30, 22:00.
Ig., 26. 19:30.
Astel., 27. 19:30, 22:00.



SINOPSISIA

**Space jam: Nuevas Leyendas**

Zuzendaria: Malcolm D. Lee. **Aktoreak:** LeBron James, Sonequa Martin-Green, Don Cheadle... **Herrialdea:** AEB (2021). **Generoa:** Animazioa. **Iraupena:** 120 minutu.

Gazte garaiko bidaiaren segida

Saskibaloiko izar handi baten semea izan arren, Dom Jamesi benetan gustatzen zaiona bideo-jokoak diseinatzea da, eta horretan abila da, gaztea izan arren. Bere aitarekin izandako desadostasunen ondorioz, biek, AI-G Rhythmen mundu

birtualean harrapatuta amaitzen dute. LeBron James NBAko izar nagusiak Bugs Bunnyrekin eta Looney Tunesekin bat egingo du. Kritika orokorraren arabera, LeBron James nahiko ondo atera da fikziozko film batean protagonista nagusi gisa.

IRAILAREN 21EAN ALZHEIMERRAREN MUNDUKO EGUNA

Zaintzen bazara, Alzheimerak atzera pauso bat egiten du

Andoingo Udalak eta jubilatuen bi elkarteek antolatzen dute

Irailak 21, asteartea

HITZALDIA:

"Alzheimerrarekin elkarbizi"

Hizlaria: KOLDO AULESTIA (AFAGI, CEAFA)

BASTERO. 18:00

Irailak 23, osteguna

VIVIR DOS VECES filmaren proiektzioa

(Dohainik, gonbidapenak aurrez har daitezke)

BASTERO. 18:00





Joseba Arregi 2019an, "Rikardo Arregi irakurtzen" ekimenean. AIURRI

Joseba Arregiren aldeko meza igande honetan Andoain

Andoaindarraren aldeko hileta-elizkizuna Bilbon izango da, ostiralean. Senideek bigarren meza antolatu dute Andoain

Erredakzioa ANDOAIN

Joan zen asteartean zendu zen Joseba Arregi Aranburu andoaindarra. Azken urteotan Bilbon bizi zen. Hori dela eta haren aldeko hileta-elizkizuna ostiral honetan izango da Bizkaiko hiriburuan.

Josebaren anai-arrebek, besalder, haren aldeko meza antolatu dute. Igande honetan izango da Andoaingo parrokiaren goizeko 10:30ean hasita. Nahi duen andoaindarrak, beraz, Joseba herrian bertan agurtzeko aukera izango du.



Kale Nagusia, iazko "Outlet kalean" edizioan. AIURRI

"Outlet kalean", ostiral honetan Andoaingo merkatalguneetan

"Bezerearen astea" ospatzen ari dira, Salkinen eskutik. Egun hauetan herrian erosteak saria dakar


Erredakzioa ANDOAIN

Salkin elkarteak aditzera eman duenez, merkatarik askok bat egingo dute "Outlet kalean" egitasmoarekin. Hauexek izango dira: Amabi, Gloss, Durazno, Alice, Mantegi mertzeria, Ormendi kirolak, Pottoko, Maindi

optika, Xare oinetakoak, Iturbe oinetakoak, Gorostidi burdingegia, Gamer, Izeia, Pepi lentzeria, Tejidos Cisneros eta Gonzalez Sastre.

Eguraldiak lagunduz gero, salerosketa sustatzeko egun polita izango da.

ZORION AGURRAK



URNIETA
Zorionak Jokin
Hilaren 19an bederatzirte betetzen dituzu!!!
Ondo pasa eguna etxeko eta lagun guztiekin.



ANDOAIN

Zorionak bikote!!!

Beste urte bat pasa da! Irailaren 8an aitona 81 urte eta Maddik 15ean 11 beteko ditu. Zuen eguna izugarri ondo pasa dezazuela eta jarraitu batak bestea zaintzen. Muxu potoloak eta besarkada haundi bat! Etxekoak

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta etxekoak. Oso erraza da, eta dohainik!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

Andoaingo emakumeentzako jabekuntza eskola

UDAZKENEKO IKASTAROAK 2021

Batukada feminista

ASTELEHENAK
Urriak 4, 18; azaroak 8, 22; abenduak 13
18:00-20:00, Leizaran Institutua.
Botapa Batukada. Bi hizkuntzatan

Kosmetika naturala lantegia

ASTEAZKENAK
Urriak 6, 20; azaroak 3, 17.
18:00-20:00, Urigain
Kris Lizarraga. Bi hizkuntzatan

Autodefentsa feminista

Azaroak 27
10:00-14:00 eta 15:00-19:00, Allurralde.
Emagin ekarte. Bi hizkuntzatan

Erotika lantegia

ASTELEHENAK
Urriak 18, 25; azaroak 8, 15, 22, 29; abenduak 13, 20
17:30-19:30, Urigain
Clara Wolfram. Bi hizkuntzatan

Gorputz kontzientziatik mugimendu askera

OSTEGUNAK
Urriak 7, 14, 21, 28; azaroak 4, 11, 18, 25; abenduak 2, 9
18:00-19:30, Urigain
Maider Olartzabal Ziganda.
Bi hizkuntzatan

Jatorri anizteta emakumeen elkargune multikulturala

Urte osoan, OSTIRALETAN
17:00-19:00, Urigain
Sorburu. Gaztelaniaz

Elektrizitate lantegia

ASTEARTEAK
Urriak 5, 19, 26; azaroak 2, 9, 16, 23, 30
17:00-20:00, Urigain
Paz Carbajosa Dalmau. Gaztelaniaz.

Berriketaldi feministak

Urriak 14: Emakumea eta kirola
Azaroak 18: Biolentzia bikarioa (Asociación Clara Campoamor).
18:00, Bastero

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:

jabekuntza.andoain.eus
Andoaingo Udaleko Berdintasun lantegia: Tel. **943 300 830**,
luz. 380 - 397; berdintasuna@andoain.eus
Andoaingo Udaleko **ATARIA** zerbitzua.

AHAZTUAK EMAKUMEAK BERTAN ZIREN ETA BERTAN ARI DIRA

ERAKUSKETA 2 0 2 1

ANDOAINGO GUDUA 1837/09/14



Ondarearen Europako Jardunaldiak
Jornadas Europeas del Patrimonio

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euzko Foru
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Irailaren 10etik 25era bitartean
Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan

Babesle:

Antolatzaile:

Sarrera doan
Orduategia:

Astelohenetik ostiralera: 18:30 - 20:00

Larunbatetan: 10:30 - 13:30 / 18:00 - 20:30

Bisita gidatuak

Izena emateko: 943 303 540 - basteroataria@andoain.eus



ANDOAINGO UDALA
Hezkuntza eta Kultura
Batzordea



MANEL
LARAMENDI
KULTUR
BAZARRA